



ERAKUNDE ADIERAZPENA

Arcelor-Mittal

HOJA 1.

Ermuko Udalbatzarrak, Arcelor Mittal lantegiaren aldi baterako itxiera mugagabea dela-eta, ondorengo adierazpena egiten du:

1. Gure elkartasun osoa adierazten diegu une latz hauetan Arcelor Mittal-Sestao eta bere enpresa laguntzaileetako langileei. Ermuko Udaletik herritarrei eskatzen diegu Arcelor Mittal-Sestaoko langileek beraien enplegua defendatzeko antolatzen dituzten mobilizazio guztietan parte hartzeko. Halaber lantegi horrek bere jarduera lehenbailehen berreskuratzea nahiko genuke, pertsona horiek guztiak beraien lan-jardunera itzul daitezen, egun baino baldintza hobeekin ahal dela.
2. Ekoizpenaren gelditze hau, mundu-mailan izan den altzairu-eskaeraren gutxitzeagatik gertatu da, baina altzairu txinatarraren soberakinen salmentak, merkatukoak baino %30eraino merkeagoak, larriagotu egin du, bai eta argi-indarraren kostu handiak ere.
3. ERAKUNDE GUZTIEI eskatzen diegu, sektoreko mahai batean elkar hartuta, Arcelor Mittal-Sestaoko enpleguen eta jardueraren alde lan egin dezatela, ekoizpen-zentro hori berriro irekitzen lagunduko duten neurriak sustatuz, eta batez ere Europar Batasunari eskatzen diogu dumping-aren kontrako neurriak har ditzala, Txinakoak bezalako ekonomia batzuek erabiltzen duten lehia desleiala geldiarazteko, eta har ditzala, halaber, energiaren prezioa berrikusteko neurriak, gero eta globalizatuagoa eta konplexuagoa den merkatu honetan enpresa handien lehiakortasunari laguntzeko.
4. Arcelor Mittal enpresari eskatzen diogu beharrezko ahalegin guztiak egin ditzala eta bila dezala lehenbailehen ekoizpenari berriro ekiteko modua, Sestaoko lantegiarentzako lana bermatuz.

Ermuan, 2016ko otsailaren 19an